



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Gizarte-balioen rola ongizaterako
lehiakortasunari buruzko bisio
partekatu baten eraketan.
Euskadiren kasua**

Ane Izulain Alejos

151-156 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.02.19>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



BERGARA

Gizarte-balioen rola ongizaterako lehiakortasunari buruzko bisio partekatu baten eraketan. Euskadiren kasua.

Ane Izulain Alejos

Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutua.

ane.izulain@orquestra.deusto.es

Laburpena

Doktoretza tesi honek gizarte-balioek ongizaterako lehiakortasunaren esparruan bisio partekatu baten eraikuntzan nola eragiten duten aztertzen du, Euskadi 2040 kasua erabiliz. Lurralde-garapenerako ikerketa-ekintzako metodologia erabiliz, esparru kontzeptual eta analitiko bat garatzen da, ezagutza teorikoa (gizarte-balioen eta etorkizunen inguruko literaturen arteko zubiak eraikitzen) eta kasuaren bitartez jasotako ikasketa gakoak integratuz. Esparru kontzeptuala metodo mistoen bidez kontrastatzen da, Europako Balioen Inkestaren datuak eta prozesuaren analisi kualitatiboa erabiliz.

Hitz gakoak: bisio partekatua, gizarte-balioak, prospektiba, ikerketa-ekintza.

Abstract

This dissertation explores the ways in which social values influence the construction of a shared vision in the field of competitiveness for wellbeing, using the case study Euskadi 2040, a regional visioning exercise in the Basque Country. Employing action research for territorial development methodology, a conceptual and analytical framework is developed, by integrating theoretical knowledge (which bridges social values and futures domain literature strands) and key experiential learnings from the case study. The framework is tested and elaborated further via mixed methods, utilising European Values Study data alongside qualitative analysis of the process.

Keywords: shared vision, social values, foresight, action-research.

1. Sarrera eta motibazioa

Munduak aurrekaririk gabeko ziurgabetasuna, aldakortasuna eta aldaketa azkarra bizi ditu (Tse & Esposito, 2017). Konplexutasuna gaur egungo sistemen salbuespena baino gehiago araua da (Tonurist & Hanson, 2020), eta garai batean ezinezkotzat jotzen ziren gertaerek definitzen dute orain gure errealitatea (Pohl, 2023).

Hiru trantsizio globali aurre egiteko premia — teknologia-digitala, energia-klima eta soziodemografikoa — nabarmen azkartu da. Nahiz eta elementu estruktural batzuek iraun, etorkizunen inguruko alorrak aitortzen du etorkizuna ez dagoela alde zuzenetik zehaztuta. Horren ordez, azpimarratzen du zer potentzial duen giza agentziak etorkizuneko ibilbidean eragiteko. Politika publikoek eta gobernuek funtsezko zeregina dute erronka horiei aurre egiteko.

Munduko beste eskualde askotan bezala, Euskal Herriak eraldatzeko premia handia du; besteak beste, enpresa-ehuna birmoldatzea, neutraltasun eta jasangarritasun klimatikoaren estandarrekin bat etor dadin, eta egungo zein etorkizuneko belaunaldien ongizatea bermatzeko erantzukizuna. Gai konplexu horiei aurre egiteko, politika publiko eraldatzaileak behar dira, ohiko plangintza-metodoetatik harago doazenak, eta, horrekin batera, adostasun sozial zabala behar da ahalegin horiek babesteko.

Testuinguru horretan, "Ongizate inklusibo eta jasangarrirako lehiakortasuna Euskadiren etorkizunerako, post Covid-19" (aurrerantzean, "Euskadi 2040") ikerketa-proiektu eraldatzaileari ekin zitzaion. Ekimenaren helburua Euskadiren lehiakortasun-erronka nagusiak zein diren, eta nola ari diren garatzen aztertzea zen, hurrengo belaunaldientzako ongizate-eredu jasangarri eta inklusiboa eraikitzeko.

Lehiakortasun-erronken mapa egiteko orduan, laster ikusi zen bisio partekatu bat eraiki behar zela lehenik eta behin. Bisioa zein zen arabera erronkak ezberdinak izango baitziren. Literaturak aitortzen du gero eta beharrezkoagoa dela ulertzea nola garatzen edo eraikitzen diren ekintza kolektiboa gidatzen duten bisioak (Sotarauta & Beer, 2021).

Euskadirentzat ongizatearen lehiakortasunaren bisio partekatua eraikitzeke prozesuan, agerian geratu zen lurraldearen etorkizuneko ibilbide egokiari buruzko bisio desberdinak zeudela, eta hori, interes partikularrez gain, lurraldean dagoen balio-aniztasunarekin lotuta egon zitekeela.

Balioen eta etorkizunen alorreko zientzien arteko lotura (batez ere etorkizun normatiboa) zabalki onartuta dago (Amara, 1991; Kuosa, 2012; Mannermaa et al., 2006; Masini, 2006). Nahiz eta lotura aitortu, autore gehienak ez dira haratago joaten, eta beraz, badago gabezia esanguratsu bat literaturan, bisio partekatuen eraketan eragina duten balio espezifikoei eta horiek prozesuan eragiteko moduari buruz. Horregatik, tesi honen helburu nagusia literaturaren bi arloren artean (etorkizuneko zientziak eta balioen gaia) arteko zubi lana egitea da, esparru kontzeptual eta analitiko integratu berri bat garatuz.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Honako ikerketa helburuak planteatzen dira:

Gizarte balioen gaiaren inguruan:

- 1) Gizarte-balio kontzeptua definitzea biztanleria eta une konkretu baterako.
- 2) Euskadiko ongizatearen lehiakortasunaren arloan eragina duten gizarte-balioen bilakaera aztertzea, Europako ongizate-kulturako hainbat eredurekin alderatuta eta genero- eta belaunaldi-ikuspegiak txertatuz. Konkretuki, lau hipotesi planteatzen dira:
 - H1: Balio post-materialistetarako joera dago Euskadin.
 - H2: Lanaren balioaren garrantzia txikiagoa da generazio gazteetan.
 - H3: Euskadin Europako batezbestekoa baino kontrol locus-a altuagoa dago.
 - H4: Kontrol locus-a balioaren inguruko genero-desberdintasunak gutxitu egin dira azken hamarkadan Euskadin.

Bisio partekatu bat eraikitzearen inguruan:

- 3) Bisio partekatua kontzeptua definitzea lurralde konkretu batentzat.
- 4) Lurralde jakin batean bisio partekatu bat eraikitzeke prozesu bat eraginkortasunez nola gauzatu daitekeen aztertzea.

Gizarte-balio eta bisio partekatu gaien arteko intersekzioan:

- 5) Kontzeptualki eta analitikoki ulertzea gizarte-balioek nola eragiten duten lurralde jakin batean bisio partekatu bat eraikitzeke prozesuan.
- 6) Funtsezko gomendioak identifikatzea balio sozialen ikuspegitik, arduradun politikoek prozesu sendoak eta eraginkorrak abiarazi ahal izan ditzaten ikuspegi partekatu eraldatzaile bat eraikitzeke.

3. Ikerketaren muina

Metodologia

Doktorego-tesi honek lurralde garapenerako ikerketa-ekintza metodologia (Karlsen & Larrea, 2014) erabiltzen du. Honek suposatzen du, ikerlaria, ikerketa arazoaren barnean kokatzen dela, eta beste eragileekin batera ezagutza ko-sortu egiten duela. Metodoei dagokienez, hainbat teknika erabili dira helburu ezberdinetarako. Esparru kontzeptual eta analitikoa garatzeko bi iturri nagusi egon dira, alde batetik, ezagutza teorikoa (berrikuspen bibliografiko baten bidez gizarte-balio, etorkizuneko zientzien eta haien intersekzioaren inguruan), eta ezagutza praktikoa, “Euskadi 2040” kasu praktikotik eratorritako ikasketak.

Behin marko kontzeptual eta analitikoa eraikita, hau kontrastatzeko, berriro ere Euskadirako aplikatu da metodo mistoak erabiliz. Analisi kuantitatiboak Europako Balioen Inkestaren bi

jasoaldi alderatzen ditu, gizarte-balioen eboluzioa ulertzeko. Analisi kualitatiboa prozesuan zehar egindako kontraste-saioen sistematizazioak aztertuz eta kodetuz gauzatu da.

Euskadi 2040 kasua

Euskadi 2040 kasua Eusko Jaurlaritzak (Lehendakaritza eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila) Orkestra ikerketa-erakundearekin lankidetzan eginiko ekimena da, 2021eko uztailan abiarazitakoa. Ekimenaren helburua Euskadiko datorren belaunaldirako ongizaterako lehiakortasunaren bisio partekatu bat eraikitzea izan da. Bisio partekatuaz gain, lehiakortasuneko 32 erronka eta 39 adierazleko zerrenda bat identifikatu dira, bisioaren lorpen-mailaren jarraipena egiteko.

Bisio partekatua garatzeko prozesua zenbait fasetan gauzatu da. Hasierako fasean, diagnostiko bat egin zen, honako hauek identifikatzeko: Euskadik iraganean izan zituen lehiakortasun-abantaila izaten lagundu zioten funtsezko faktoreak, egungo ongizate eta lehiakortasun maila, eta etorkizuneko joeren ebaluazioa eta eskualdean izan zezakeen eragina. Ondoren, ekimena bultzatu zuen taldeak bisio proposamen bat egin zuen, maila anitzeko, sail arteko eta eragile anitzeko kontraste espazioetan garatu zena. Azkenik, agenda partekatu bat garatzeko prozesu baten bidez bisioa ekintzara nola itzuli hausnartzen saiatu ginen.


Prozesutik funtsezko sei ikaskuntza ateratzen dira, esparru kontzeptual-analitikoa eraikitzeko lagungarri izango direnak.

- Gizarte-balioak neurtzeko zailtasuna oztopo bat da balioekin lotutako dimentsioak bisioaren dimentsio gisa sartzeko.
- Bisioa garatzeko prozesuaren lidergo-taldeak zeregin nabarmena du.
- Bisio prozesuan parte hartu dutenek maila indibidualean nahiz erakundeetako ordezkari gisa parte hartu dute.
- Bisioaren edukiaz gain, bisio-prozesua eta emaitzaren formatua garrantzitsuak dira parte-hartzaileentzat.
- Balio partekatuak identifikatzeaz gain, bisio-prozesuak posizio polarizatuak eta kontrako balioak identifikatzeko aukera ere ematen du.
- Bisioaren prozesuaren barruan, bisioaren emaitza bera eta ekintza desberdindu daitezke.

Esparru kontzeptual eta analitikoa

Balioen funtsezko ezaugarrietako izaera duala dutela da. Horren adibide dira autore nagusiek balioen esparruan garatutako balio-esparruak (adibidez, Hofstede-ren kolektibismoa eta indibidualismoa, Inglehart-en materialismoa eta indize post materialista edo Schwartz-en auto-hobekuntzaren dilema) (Hofstede, 2001; Inglehart & Welzel, 2005; Schwartz, 2006). Bestela esanda, balio berari dagozkion bi mutur edo muga kontrajarri daude. Muga horiek etorkizun desiragarrien mugen baliokideak dira kontzeptualki ere, eta etorkizunetako eremuari aplikatzen badiogu, honela irudikatu daitezke, etorkizuneko konoan (Voros, 2022).


1. irudia. Gizarte-balio distribuzioa etorkizuneko konoan



Balioak eta etorkizuna lantzeko prozesuak gurutzatzen dituen literaturaren lan zabalenak balioetarako dauden hiru mailetan ezberdintzen (nazionala, erakundeakoa eta indibiduala), etorkizuna garatzeko "prestasun kulturala" aztertzerakoan (Panizzon & Barcellos, 2019). Tesi honek bi ekarpen egiten dizkio marko horri:


- Alde batetik, prospektiba maila nazionalen soilik egiten ez dela irudikatzea, maila nazionala lurraldeko mailagatik ordezkatzeko proposatuz.
- Beste alde batetik, balioen mailaz gain, bisioa eraikitzean pertsonen rol ezberdinak jokatu ditzaketela (lidergoa edo partehartzea) azalartzea, eta jokatzeko duten rola eraberrera, haien balioek prozesuan eragin ezberdina izan dezaketela aldarrikatzea.

2. irudia. Balioen maila eta rolean oinarritutako paradigma



Azkenik, gizarte balioek lurralde batean bisio partekatu bat eraikitzean duten eraginaren inguruan, hiru etapa ezberdinak daitezke: bisioaren prozesuaren inguruko balioak, bisioaren edukiaren inguruko balioak, eta bisioa ekintzara eraman (ala ez) inguruko balioak. Honako irudian laburbiltzen direlarik.

3. irudia. Gizarte-balioen eragina bisio partekatu baten eraikuntzan: hiru etapa



4. Ondorioak

Esparru kontzeptual eta analitikoa eraiki ondoren, eta Europako Balioen Inkestaren analisi kualitatibo eta Euskadi 2040 prozesuaren analisi kualitatiboa egin ondoren, esparru kontzeptuala berrikusiz, tesiak, politika publiko arloan daudenentzat mezu gako batzuk eta gomendio batzuk jasotzen ditu. Lehenik eta behin, gizarte-balioen inguruan, galdera ez da pertsonen balioak dituzten edo ez, baizik eta zein balio dituzten, edota zein balio lehenesten duten. Tesiaren hasieran Euskadiko balioen inguruko hipotesien gainean, honako emaitzak lortu dira:

- H1: Balio post-materialistetarako joera dago Euskadin. Hipotesia onartu egiten da.
- H2: Lanaren balioaren garrantzia txikiagoa da generazio gazteetan. Hipotesia baztertu egiten da, izan ere, lanaren balioaren garrantzia txikiagoa da geroz eta adin altuagoko pertsonetan. Honen azalpen bat izan daiteke lanaren garrantzia bizitza momentuari oso lotuta dagoela.
- H3: Euskadin Europako batezbestekoa baino kontrol locus-a altuagoa dago. Hipotesi hau baztertu egiten da. Izan ere, Euskadin (7,11) Europako batezbestekoa (7,21) baino baxuagoa da, baita Espainia (7,38) eta Finlandian (7,21) baino baxuagoa, azken olatuan.
- H4: Kontrol locus-a balioaren inguruko genero-desberdintasunak gutxitu egin dira azken hamarkadan Euskadin. Hipotesi hau ere baztertu egiten da. Gizonezkoen (7,22) kontrol locus-a, emakumezkoena (7,01) baino altuagoa da, eta 2008ko olatutik handitu egin da.

Bisio partekatuak, bere gain helburu bat izateaz gain, aurrebaldintza bat dira zeinbait ikuspegi aurrera eramateko, esaterako, “gobernu holistikoaren” ikuspegia (Pontikakis et al., 2022). Etorkizunen zientzien inguruan gizartearen alfabetizazio maila zabaltzea garrantzitsua da, bere potentziala partekatuz, eta pentsaera sistemikoa sustatuz. Gizartean lidergoan dutenen pertsonen ezagutza ez ezik, haien balioek duten eragina azaleratu du tesiak, beraz, horretan fokoa jartzea ere ezinbestekoa da. Azkenik, haurrak eta gazteak bisio partekatuak eraikitzeke prozesuetan inplikatzeko, garrantzitsua litzateke, gizarte kohesionatuagoak sortzeko potentziala baitu.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Lan honetatik abiatuta, ikerketa sakontzeko honako hiru bide hauek planteatzen dira:

- 1) Marko kontzeptual eta analitikoaren aplikazioa zabaltzea. Bi modutan egin liteke. Alde batetik, alderaketa lurralde gehiagotara zabalduz, munduko balioen inkesta (WVS) datu-baseak erabiliz, eta Keenan eta Popper (2008)-en lanaz baliatuta. Beste alde batetik, analisia denboran zabaltzeko, kasu praktiko berdin batean esparrua ex ante eta ex post erabiliz.
- 2) Marko kontzeptual eta analitikoan sakontzea. Horretarako, literaturako gizarte-balioen inguruko beste esparru batzuekin (Schwartz edo Hofstede, adibidez) elkarriketan jarri

daiteke, balioen kategorien taxonomia bat sortu, edota funtzio honetarako *ad hoc* tresna bat sortzea.

- 3) Euskadiraiko ateratako zenbait gaietan sakontzea. Adibidez, ekonomiaren garapen eta jasangarritasunaren arteko balioen artean zein lehenesten den sakonago aztertzea, edo gure kulturaren mantentzearen eta kanpoko kulturei irekita egotearen arteko lehenespena.

6. Erreferentziak

- Amara, R. (1991). Views on futures research methodology. *Futures*, 23(6), 645–649. [https://doi.org/10.1016/0016-3287\(91\)90085-G](https://doi.org/10.1016/0016-3287(91)90085-G)
- Hofstede, G. (2001). *Culture's consequences: Values, behaviors, institutions, and organizations across nations* (2 edición). Sage Publications.
- Inglehart, R., & Welzel, C. (2005). *Modernization, Cultural Change, and Democracy: The Human Development Sequence*. Cambridge University Press.
- Karlsen, J., & Larrea, M. (2014). *Territorial development and action research. Innovation through dialogue*. Gower Pub Co.
- Keenan, M., & Popper, R. (2008). Comparing foresight “style” in six world regions. *Foresight*, 10(6), 16–38. <https://doi.org/10.1108/14636680810918568>
- Kuosa, T. (2012). *The Evolution of Strategic Foresight: Navigating Public Policy Making* (Routledge).
- Mannermaa, M., Dator, J., & Tiihonen, P. (Eds.). (2006). *Democracy and Futures*. Committee for the Future. Parliament of Finland. https://www.parliament.fi/FI/naineduskuntatoimii/julkaisut/Documents/tuvje_1+2006.pdf
- Masini, E. (2006). Rethinking futures studies. *Futures*, 38(10), 1158–1168. <https://doi.org/10.1016/j.futures.2006.02.004>
- Panizzon, M., & Barcellos, P. F. P. (2019). A Three-Level Evaluation Process of Cultural Readiness for Strategic Foresight Projects. *World Futures Review*, 11(4), 331–350. <https://doi.org/10.1177/1946756719862115>
- Pohl, L. (2023). Geographies of the impossible. *Dialogues in Human Geography*, 20438206231177068. <https://doi.org/10.1177/20438206231177069>
- Pontikakis, D., González Vázquez, I., Bianchi, G., Ranga, M., Marques Santos, A., Reimeris, R., Mifsud, S., Morgan, K., Madrid, C., & Stierna, J. (2022). *Partnerships for Regional Innovation Playbook* (Publications Office of the European Union). doi:10.2760/775610
- Schwartz, S. H. (2006). A Theory of Cultural Value Orientations: Explication and Applications. *Comparative Sociology*, 5(2–3), Article 2–3.
- Sotarauta, M., & Beer, A. (2021). Handbook on City and Regional Leadership. In *Handbook on City and Regional Leadership*. Edward Elgar Publishing.
- Tonurist, P., & Hanson, A. (2020). *Anticipatory Innovation Governance. Shaping the future through proactive policy making*. (Working Papers on Public Governance 44). OECD. <https://doi.org/10.1787/cce14d80-en>.
- Tse, T. C. M., & Esposito, M. (2017). *Understanding how the future unfolds. Using DRIVE to Harness the Power of Today's Megatrends*. Lioncrest publishing.
- Voros, J. (2022, March 8). A primer on Futures Studies, foresight and the use of scenarios. *The Voroscope*. <https://thevoroscope.com/publications/foresight-primer/>

7. Eskerrak eta oharrak

Lan honek Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren laguntza izan du, 2021eko uztailaren 29an sinatutako lankidetza-hitzarmenaren bitartez.